

AOTEAROATIK

Imanol Miner Aristizabal

Antipodetako herbeste honetan, nere sorterriko hauteskunde kutsuko ekaitz, trumoi eta erasoetatik urrun, errazagoa zait Oarso urtekariaren urteroko eginkizunari heldu eta aurreko urteetako idazlanen haritik gure miserietan aritu beharrean, zilborrari begiratzerari utzi eta bestelako kontu batzuen gainean aritzea. Badakit ez direla garai errazak eta urteetan gehiegi luzatzen ari den gatazkak bere unerik gordinenak bizi dituela egunotan baina uruti egonagatik hango berriak gertutik jarraitzen ditudan arren ez dut sakoneko aldaketarik antzematzen batzuen eta besteen ikusmoldeetan eta konturatzen hasia nago galtzen gaituen sorgin-katea eten ezean, behin eta berriro gertatuko direla, azkenaldian errepikatzen ari

diren gertaerak. Ez noa, beraz, aspaldian mahai gaineratuta dauden eztabaidagaien gainean udaberri honetan zehar Jon Sarasuak eta Joseba Berriolak besteak-beste, “Golde-Aroaren” gainean adierazitakoak errepikatzen hastera, ur bizigarria nahi duena, doala iturburura. Eta jaso ditzadan begiak behingoz hemen hilabete pare batean ikusi eta ikasitakoak tintontzian bildu eta zuentzat papereratzeko.

Bertako jatorrizko biztanleek Aotearoa izenez bataiatutako lur izugarri eder batean nago, gure herrian Zeelanda Berria bezala ezagutzen dugun herrialdean alegia. Behin-lako marinel euskaldun haien antzera, hizkuntza, kultura, lurralde eta errealitate desberdinak deskubritzera, ingelesa hobetzeara,




maoriera zertan den ikustera eta aukerarik sortuz gero ikastera ere eta orobat atzerrian egonaldi bat egitera etorri naiz lurralde zoragari bezain ezin urrutiagoko honetara.

Hamar urterekin hasi nintzen lehenengoz ingelesa ikasten eta nonbait ingelesa ikasi zuen lehenengoetako belaunaldietakoa izanik, ordu hartan atzerriko hizkuntzen irakaskuntza behar bezala antolatu gabe edo, garesti ari gara ordaintzen, dirutan bezala denbora-esfortzuetan, gazteago ginela behar bezala ez ikasitakoak. Oraingo gazteek guk baino zorte hobea izango al dute... Behin ikastola bukatuta unibertsitatean hasiz geroztik, orain hartu-gero utzi aritu naiz ingelesarekin amodio-gorrotoko hartueman amaitezin batean zakua paratu eta herrialde anglofono batera etortzea erabaki dudana arte. Eta behin honaino etorrira zer deskubrituko? Lehenago banekiena, ingelesa gauza guztien gaintik negozioa dela, eta ez ttikia gainera. Milioika gara herrialde anglofonoetan bezala ez anglofonoetan ere eskola, unibertsitate eta gainerako ikastegietan ingelesa ikasten ari garenak, ehundaka mila batzuk ingelesaren kontura bizi diren irakasleak eta bilioika dira negozio honek guztiak mugitzen dituen dolarrak. Aipatu gabe doaz honen guztiaren atzetik ezkutatzen diren mota askotako interesak, bereziki komertzial eta ekonomikoak. Badakit ez naizela ezer berria deskubritzen ari, kontua da, hemen, Aucklanden bertan, herrialde ugaritako jendareekin topo egiten dudala egunero eta aukera suertatzen denean bere herrietako jatorrizko biztanleei eta berauen hizkuntzei buruz galdetzen diedanean, betirako ordezkaturia izateko zorian dagoen herri / hizkuntza baten edo gehiagoren berri izaten dutela gehienek eta gaian sakontzen hasiz gero, normal eta naturala dela esanez justifikatzen dute, bizilegea balitz bezala. Ongi-etorri Imanol globalizatutako pertsonen osatutako mundu globalizatu-globalizatailerara.

Asiarrak dira hemengo ikastetxeetan jaun eta jabe: Txina denen aurretik, gero Japonia eta segidan Taiwan, Korea, Singapur, Kanbodia, Vietnam, Thailandia eta abar. Beraien herrialdeetan dirutza bat ordainduta etortzen dira hona, hiru, sei, bederatzi hilabete edo urtebeterako (bakotzaren diru-ahalmenen arabera), eta masiboki pilatzen dituzte klaseetan; beraien artean bildu eta antolatzen direnez gero, Txina edo Japonia txiki bat sortuta, norbera bere jato-

rizko hizkuntzan jarduten da, ingelesa eskolordutara murriztuta. Ekialde urruneko aberatskume ugariren udalekua da hiri hau, kultura globalizatu-globalizatzailean murgilduta, inkoszientzia kolektibo batean bizitzeko leku ezin aproposagoa. Baina hauen guztien artean ere badira oso gogor bizimodu berri bat abiatzen saiatzen direnak, hemengo unibertsitatearen batean ikasteko asmoarekin datozenak, euren herrialdeetatik ihesi datozenak, bakoitza bere hizkuntza, kultura, ohi-turak bizkarrean hartuta eta kulturarteko halako anabasa bat sortuz.



Asiarraren ondoren, askoz gutxiago izanagatik giza talde populutsuena latinoamerikarrak dira: Brasil, Kolonbia, Argentina, Peru, eta abar. Gazterik ezkondukoak batzuk, estudiantetunanteak besteak, oporretara batzuk, serio ikastera besteak, lanen bat bilatzeko gogoz abilenak, azal beltzaran-ibilkerak grazioso eta mami kontserbadorekoak gehienak.

Eta azkenik ahoa ireki artean bertako kiwi bat gehiago bezala hemengo kaleetan galtzen garenak gaude, ikasgeletako pieza exotikoenak: europarrak. Gutxi eta oso sakabanatuak eta ingeles eskolengandik izugarri preziatuak.

Guztiak ere bizimodu bera egiten, mundu globalaren alde lehunenaz gozatuz,

Saramagoren “La Caverna” hartan bezala egunetik egunera odezkatua den beste munduari bizkarra emanda, multinazional eta frankiziez osatutako kikilisalda uniformizatzailearen lapikoan egosten, gustora.

Orain milurteko pare bat latinarekin Europako mendebaldean gertatu zenaren antzeko zerbait ari da gertatzen ingelesarekin eta beranduago, Erdi Aroko hezkuntza, kultura eta abarren esparruetan gertatu bezala, gure euskalgintzan bertan ere, geroz eta beharrezkoago dugu ingelesa, beste herrialde ugarietako esperientziak ezagutu eta gureak elkartrukatu nahi baditugu bederen. Ozeania honetan eta auzoko Asia urrunean, ingelesa, mandarinerana, frantsesa eta gisako hizkuntzekin lehian dabilzan hizkuntz komunitateak ugari dira: Taiwanen esate baterako, mandarinerana hedatzen eta nagusitzen hasia dela ohartuta, Taiwaneraren aldeko mugimendua indartzen hasia dela kontatu zidan aurrekoan gelakide batek; eta berriki jakin dudanez, orain 30 urte Samoan eskolak samoeraz baziren ere, egun ingelesa omen da Samoako eskola hizkuntza nagusia; horra adibide bi, planetaren bestaldean gertatzen ari denaren erakusgarri.

Bi hilabete bakarrik egin ditut Aucklanden eta gure bailaran lehenengoz eta Euskal Herrian bigarrenegoz eukarazko egunkaria plazaratu berri dugun honetan, aurreko mende hasieran izan bazirela nonbait irakurri dudan arren, oraindik ez dut maorieraz egunkari edota aldizkari bakar bat ere aurkitu ohiko saltokietan, ez matrikulazio kanpainarik ikusi “maoritegiatarako”, ez maoriezko eskolen alde dirua biltzeko festarik aurkitu, ezta maoritegirik ikusi ere. Egon, ba omen daude baina ez dira nabarmenak, ez daukate erakarpen indarrik. Txinerak berak presentzia nabarmanagoa du maorierak baino hiriko kaleetan; egunkariak, aldizkariak, jatetxeak, topalekuak, supermerkatu eta dendak, denetik dute.

Baina hori bai, Ipar Euskal Herrian gertatzen den moduan, dena da maori hemen, kultura, artea eta salgarri den edozer gauza. Maorien indar fisikoa eta folklorea dira onesten zaizkien gauza bakarrak, gainerakoan alperrak, motelak, nagiak, kudeatzaile kaxkarrak omen dira. Egunotan, hedabideetan aireratu dutenez, esate-baterako, maorieraz telebista sortzeko bideratutako diruekin milioika dolarreko iruzurren bat gertatua behar du izan, nire ingeles murriztarekin eta pisukideak emandako azalpenetatik ulertu dudanez.



Mendeetako kolonizazio prozesu baten ondoren, komunitate bakoitzak bere nortasunari ahal duen moduan heltzen dio: zuri-europarrek gehiagotasun konplejuz eta gainerako komunitateek, gutxiagotasun konplejuz. Kiwi izeneko nortasun hibrido bat sortzen saiatu diren arren, hibridoak diren espezie guztiak bezala ez da emankorra eta ziur aski ez da gizartean behar bezala mamitu. Elkarbizitzarako kulturarik oraindik ez dute garatzea lortu eta norberak bere etxera errazten duen moduan bere astoari esaten dio: Arre!

Jatorri eskoziarreko kiwiz inguratuta bizi naiz, (kasualitatea besterik ez da), eta beraien diskurtsoan oso garbi bereizten dituzte maoriak eta europarrak, elkar uztartu ezin diren bi komunitate bezala eta maorien kultura zaharra, bitxia eta interesgarria dela dioten modu berean, ez dute maorien aurkako madarikazioak botatzeko inongo erreparorik. Konturatuta nago halaber maoriekin batera txinatarrak (edo asiarrak oro har) direla zurien mespretxuzko madarikazioen jomuga ohikoenak, izan ere, arrazazko aurreiritziak oso hedatuak daude hemen ere. Euskal Herrian afrikarrek, ijituek eta hegoamerikarrek betetzen duten paper bera betetzen dute hemen maoriek eta asiarrak; inork nahi ez dituen lanak eurek egin behar izaten dituzte: eraikuntza, garbiketa, udal txeko brigadak, estoldetako garbiketa, arrantza, nekazaritza eta abar. Honek guztiak izango du eraginik ziur aski Zeelanda Berria, mundu mailan bere buruaz beste egiten duten herrialdeen zerrendan lehenengo postuetan egoteari dagokionean.

Baina ez nuke idazlan hau, egitate zehatzagoen maitaleak gogoan hartuta, han-hemenka irakurri eta bildutako datu soziolinguistiko zenbait bildu gabe amaitu nahi, orain arteko guztiak, bi hilabete haue-



tan nire ingeles mugatuarekin Aucklandetik atera gabe jasotako esperientzia eta inpresioak besterik ez baitira. Horra beraz:

- 2001. urtean Zeelanda Berriko gobernuak enkargatuta 5.000 maori helduri egindako ikerlan baten arabera, 15 urte-tik gorako maorien % 59k uler dezakete maoriera eta % 43k nola edo hala hitz egin. Maori helduek, haur eta gaztetxoek baino gehiago eta hobeto hitz egiten dute maorieraz eta nagusiki etxean eta gertuko komunitatean bakarrik erabiltzen dute. Azken 12 hilabeteetan helduen % 22k Kaukaparen (eskola) alde lan egin edo erregulariki diruz lagundu dutela aitortzearekin batera, 34.800 helduk epe berean maorieraren ikastaroren batean parte hartu dutela aitortzen dute.
- 2001eko erroldako datuen arabera, Zeelanda Berrian 3.727.277 biztanle bizi dira eta hauen %98'2k dakite ingelesa. Hae-

tatik maoriak 526.281 dira eta oinordekoak kontuan hartuta 604.110, populazio osoaren %16'2 alegia. Hauetatik maori hiztunak 160.527 dira, alegia, maorien %26'5 eta Zeelanda Berriko biztanleen %4'3. Maoriera da herrialdeko bigarren hizkuntza mintzatuena eta maori hiztunen ia erdiek 25 urte baino gutxiago dute.

- 2000. urteko matrikulazio datuen arabera, Zeelanda Berriko Haur Hezkuntzan matrikulatutakoak 174.245 izan ziren eta hauen %6'6k (11.519 ikaslek) ikasi zuten maorierazko murgiltze programetan. Haur hezkuntzan matrikulatutako ikasle maoriak 32.255 izanik, euren arteko %35'3k (11.397 ikaslek) ikasten du murgiltze programetan. Ondorioz, ikasgai guztiak maorieraz dituen murgiltze programe-tan matrikulatutako ikasleen %99 maoriak dira eta gainerako %1 Pazifikoko beste jatorriren bat duena edo zuria.